# NI ETA NIRE TALDEA

## DENOK BAT

### Atsegina izatea modan dago

Pertsonen arteko harremanetan izaten dituzten jarrerek garrantzia handia dute: nolako jarrera duten, horrelako erantzuna jasoko dute; hau da, ondorioak jasotzen dituzte, onak edo txarrak. Beraz, tratu ona jaso nahi baduzue, jarrera baikorrak sustatu beharko dituzue eta laguntasunezkoak azaldu. Hau oso garbi ikusten da proposatzen den bideoan.



Atsegina izatea modan dago bideoa lortzeko helbidea:

https://www.youtube.com/watch?v=DcsPaPV5mlk&t=53s

Bideoan agertzen diren pertsonaien jarrerak aztertuko dira, baita jarrera horiek ekartzen dituzten ondorioak ere.

Era berean, pentsatu behar da kontrako jarrerek zer-nolako erantzunak sorrarazten dituzten eta zergatik.

Ondorioak aterako ditugu eta, ahal bada, akordioren bat hartuko dugu:

Zer-nolako jarrera → zer-nolako erreakzioak → zergatik

**Gelan guztiok guztiokin atseginak izango gara.**